

Getxo Bizia herri plataformak datorren urriaren 28ko udal batzarrerako aurkeztzen duen
INTERPELAZIOA

LAB SINDIKATUAREN EGOITZA GETXOKO UDALEAN ERASOTUA

Urriko lehenengo asteburuan zehar LAB sindikatuak Getxoko Udalean duen egoitza erasotua izan da.

Egoitza sindikala Martikoena kaleko udal eraikinetan dago eta urriaren 3ko astelehen goizean atea apurtuta agertu zen. Horrez gain paperak eta beste material batzuk gasolina arrastoz eta erreta agertu ziren. Egoitzan sindikatuak duen ordenagailua aldiz ez zegoen bertan, desagertuta zegoen, erasoaren egileek lapurtuta itxura guztien arabera.

Udaleko LAB sindikatuko ordezkariak salatu dutenez, ez da lehenengo aldia ezezagunek euren egoitzaren atea bortxatu eta ordenagailua ebazten dietela. Gainera erasoan egileek asteburuan zehar itxita ohi dagoen Martikoenako udal eraikinera, ezer apurtu gabe atea zeharkatuz sartu behar izan dute, sindikatuaren egoitzara iritsi aurretik: Giltzez udal eraikinera sartu, sindikatuaren egoitza erasotu, ordenagailua besapean bide beretik atera eta azkenik zerraia berriro itxi.

Getxoko Udaleko agintariek ez dute publikoki ezer adierazi oraindik gertakari larri hauen inguruan eta jasandakoari buruz berba egiteko ere ez dira udal langileak diren LAB sindikatuko kideekin harremanetan jarri.

Gertatutakoa eta udal agintarien pasibitatearen aurrean, Getxo Bizia herri plataformak hurrengo INTERPELAZIOA egiten die Pertsonal Arloko zinegotzi arduradunari eta Getxoko alkateari:

1. Urriko lehenengo asteburuan zehar LAB sindikatuaren egoitzak jasan zuen erasoaz eta lehenagoko aurrekarietaz berba egiteko, noiz jarriko zarete LABeko sindikatu ordezkariekin harremanetan?
2. Kontutan hartuz eraso udal eraikin baten barnean izan dela eta egileek bertarako sarbide erreza izan dutela, gertakariak argitzeko zer nolako ikerketa egiten ari edo egingo du Getxoko Udalak?
3. Zer neurri hartuko du Getxoko Udalak aipatu gertakariak errepika ez daitezen?

Getxon, 2005eko urriaren 24an.